

"Apostoluak" Hondarribiko

Hondarribia, 12. zk., 1987-04: 5.

Hondarribira etorri berrian niri inpresio handia egin zidan zerbait, Aste Santuko errituaren elizkizun tradizioa izan zen, eta bereziki, Apostoluena.

Benetakoan antzik aurkitu baitnien.

Benetakoak, niretzat, neuk haurtzarotik estampa eta elizetako irudien bitartez buruan jasoak ditudanak dira, eta hemen bada arrazoin biderik ere: Batetik, Kristorekin ibili ziren batzuk arrantzaleak ziren, eta herri eta denbora guztietarako arrantzaleak seinale bera dute aurpegian, eguzki berak, haize berak eta kresal berberak zurratu dien larru ilun gorriska hori; lehortarrak ez bezalako azal kolorea, noski, eta, honekin kontrastean, begi zuri argiakoak. Bestetik, imajinetan apostoluek erakusten duten seriotasun eta saindutasun jitea ez da antzerkietan aktoreek egiten dituzten planta edo itxuren modukoa, fedea berak eragindako zerbaiten agerpena baizik.

Neuk halaxe sentitu nituen orduan, eta geroztik ez dit ezerk gezurtatu orain ia hogei urteko inpresio hura.

"Apostolu" hauetako bateren bat kalean ikusten dudanean, imajinazioak jazten dit kolore biziko soinekoaz eta sinboloaz, buruinguruan zisku eta guzti. Oso gauza bitxia da gertatzen zaidan hau. Litekeena da, apostolu hauetako batek noizpait mozkorralditxo bat harrapatzea, Noe berari gertatu zitzaion eta!, baina hala ere nire begiek ez lukete sinistuko.

Hondarribiko Aste Santuaren agerpen hauek famatuak dira aspaldidanik. Luis de Uranzuk esaten digunez, orain ehun urte Ingalaterrako Eduardo VII. erregea bera ikusi zuen, historialaria mutiko zela. Kale Nagusiko 33garreneko balkoitik prozesioari begira; hain gustokoa aurkitu zuen, hurrengo urtean berriz etorri zen. Eta Sueziako erregea ere hemen izan zen beste batean.

Hondarribiko tradizio eder honen zati berezienak bi dira *Gurutzetik jaitsiera* edo *Topara*. Lehenengoa, ostiral santu arratsalde, eta bigarrena, Pasku igandez. Bietan hartzen dute parte Apostoluek: lehenengoan, hiltzeak eta koroia jaitsi eta Gorputza bera kristalezko urna batean sartuta gero martxan jartzen den prozesioan; Toparan, berriz, Amabirjinaren bila doan igandeko prozesioan.

Aurten ere hor izango ditugu; tradizioa langile fina baita.

Hainbeste urtez, ez dira beti berak, noski, eta norbait hiltzen denean, apostoluak ere hiltzen baitira, bere senidetarteko norbaitek tradizio ederrez jasoko ditu apostoluaren sinbolua, soinekoa eta, baita heredentzia beraz, apostoluaren egitazko seriotasun berezi hori ere.